



Joxe Azurmendi

Zegama, 1941. EHUko irakaslea Filosofia Modernoan, saiakera du arlorik jorratuena eta lanabesik eraginkorra. Lehendabiziko idazlanek izan zuten arrakasta gogoan izanik ere (*Hizkuntza, etnia eta marxismoa, Kultura proletarioaz, Zer dugu Orixeren kontra?, Zer dugu Orixeren alde?, Arana Goitiren*

*pentsamendu politikoa, PSOE eta euskal abertzaletasuna, etab.), azken hogeituroko saiakera-lanak izan dira berebiziko proiektzioa eman izan diotenak: *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991), *Espainolak eta euskaldunak* (1992), *Demokratak eta biolentoak* (1997), *Oraingo gazte eroak* (1998), *Espainiaren arimaz* (2006), *Volksgeist. Herri Gogoa* (2008), *Azken egunak Gandiagarekin* (2009)...*

Hiru galderei hiru erantzun: 1. ez dakit, 2. ez dakit, 3. ez dakit. Baina zerbait erantzun beharra badago, zerbait asmatuz:

Zergatik idatzi?

Beste behin norbaiti emandako erantzuna ematen dizut: "Jakinen sortu nintzen idazte mundura: pentsamendu aldizkari batean eta ekipo batean. Horrek erabaki du nire bidea

saiogintzara. Lumarekin batzuek idatzi egiten dute, idazleak dira: poetak, nobelistak, ipuilariak. Nik lumarekin lan egiten dut eta langilea naiz besterik gabe: idazkina. Ene haurtzaroko basomutil nafarren antzera, euren lanetako lankide naiz, beste pentsamendu bat, beste euskara bat, bestelako herri bat jaso nahiz, ekipoan diharduten langileekin. Hala, nik idatzi dudana, guztion borroka eta premietatik idatzia da. Literatoak askatasunetik idazten badu, euskarazko saiogileak, onenean ere, askatasunerako.

Zergatik idazten dudan eta zergatik hizkuntza honetantxe, ez dakit. Baina ni, euskara debekatua zegoen mortu idor batean, hasi nintzen idazten, eta gaztearen arrazoi sendo asko neukala orduan, oroitzen naiz. Gaur beharbada esango nuke: eskolan literatura latinoan, espainolan, frantsesa irakurtzen hasi nintzenean, hizkuntzaren mirariak liburuetan arras liluratzen ninduen, eta mirari hura euskararentzat ez zegoen.

Ziurrena mirari haren bila hasiko nintzen neure barneko hizkuntza isilean idazten. Egun behintzat horren irrikan idazten dudala, daukat susmoa, behin ikusi eta beti ihes egin didan mirariaren peskizan beti euskararentzat. Lilura harengatik kondenatu nuen apika nire burua, eta daukat kondenatua, jolas eta amets egin ordeztumarekin, betiere hizkuntza lantzen lan egitera".

Idaztea libre?

Idaztea, neurri batean grina bat denez, ez da librea; grina bezala neure-barrueneko guraria denez, nire askatasunaren espresiorik handiena da, niretzat, hain zuzen nire sormenaren espresioa hori delako.

Askatasunak gizartearen eta politikaren aldetik dituen mugak, gaur ez zaizkit iruditzen larriak. Baina hori, zer

esan gura edo esan behar denetik dago, eta beste batzuentzat gure gizartea oso librea ez dela beraiek esan nahiko luketenerako, erraz imajinatzen dut.

Gogokoenak?

Garai batean ukan nituen behin eta berriro irakurtzen nituen autoreak: Horazio latinez, Quevedo gaztelaniaz, Orixe euskaraz... Gaur ez. Baina plazer handiz euskal autore gazteago batzuk irakurtzen ditut edozein momentu libretan. Izugarri ondo idazten da gaur. Tamalez, gustuko testuak gustuagatik irakurtzeko momentu libreak ez dira asko egoten nire egunean..